

Noaqua!!

H A M A B O S K A R I A

2000ko azaroaren 24a V.urtea

Usurbil, 101. zenbakia



**Herriko elementu
historikoak aztertuz**

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8


**GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2,4,6,8**

GARAGE ITXIAK. KOMUNITATEN ADMINISTRATUA.
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT. ALTURA BEREZIAK.
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT. TAMAÑA ETA LUZERA
DESBERDINAK. EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN. KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN


**SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK
SARRERAK: 500.000 pezetarik. HILEKOAK: 15.000 pzl.**

**MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE**

GARAGEN DISTRIBUZIOA




Lehenengo solairua



Bigarrenengo solairua

SETABU TAILERRAK, S.M.

ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



SOLDADURA

BURDINEZKO ATEAK

BURDIN SAREAK

PLANOTIK EGINDAKO PIEZAK

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TEL: 943 36 08 48
FAXA: 943 37 24 67



TXIMINIA ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Aintzane**, eta ondo pasa zure urtebetze egunean Joxe Luis, Ane eta famili osoaren partez.



Abenduaren 5ean guapo guapo hire eguna ospatzen ikusi nahi haugu, herriko printzesak hire zain egongo gattuk eta. Zorionak **Iñaki!**



Asier gure etxeko mutikolari zorionak eta muxu haundi bat gurasoen partez.



Zorionak **Oihane!** Abenduaren 1ean 4 urte egingo dituzenez egun berezi horretan oso ondo pasatzea espero dut. Muxu haundi bat Ainararen partetik.



Hilabete honetan izanak dira **Luken eta aitaren** urtebetetze egunak, **Herrik**, berriz, hilaren 27an beteko ditu. Horregatik muxu haundi bana eta zorionak amaren partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota titulu-
ren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri
beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: abenduaren 8an
Ekartzeko azken eguna: azaroaren 30a

Jaiotzak

**Oren Faz
Aierbe**

2000-11-06
Atxegalde

**Unax Lasa
Etxeberria**

2000-11-07
Kale Nagusia

**Mikel Urkia
Pino**

2000-11-08
Atxegalde

**Itxaso Sanchez
Encinas**

2000-11-10
Galtzaragaina

**Julen Larrañaga
Balerdi**

2000-11-17
Galtzaragaina

Udaltzaingoaren ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu
deitu telefono honetara

943-361112

Bai, esan?

• Udala	37 19 51	• Taxi geltokia	36 21 78
• Udaltzaingoa	36 11 12	• D.Y.A.	46 46 22
• Anbulategia	36 20 13	• Gurutze Gorria	27 22 22
• Udarreki ikastola	36 12 16	• Gure Pakea	37 32 28
• Agerialde ikastetxea	36 38 95	• Gure Elkarte	37 17 51
• Oiardo kirolegia	37 24 98	• Arrate egoitza	36 63 40
• Zumarte	37 15 94	• Eusko Tren	47 09 76
• Etumeta	37 20 01	• Noaua! aldizkaria	36 03 21

txaro artz
ILEAPAINDEGI

**Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa**

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85

Kalkos kopisteria

- Fotokopiak
- Fotokopiak koloretan
- Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- Planoen kopiak (AO arte)
- Ordenadoreko lanak
- Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55



ARRAINDEGIA
PELLO



Arizeta Kalea,1
Tlf 36 21 64
USURBIL



**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tif. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.topagunea.com/noaua/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieto, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zaloa Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idola Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:

Ana Isabel Rodriguez eta
Gotzon Garmendia
historialariak



Udala eta aholku batzarrak

Xabier Pikabea

Udaleko zinegotzi ohia

Giza eskubideetan nagusienetako bat demokrazia da. Demokraziak hauxe esan nahi du: herriaren subiranotasuna; botere publikoak herriak aukeratzea.

Botere publikoak herriak aukeratzeko sistema hau ez da orain-oraingoa, Euskal Herriak aspalditik izan duen gobernakera baizik. Esateko XVIII. mendean bai Aldundi, bai Udal, bai Batzarre Nagusiko kargu publikoak herriak berak bazuen eskumen aukeratzeko.

Herriak hurbilen dagoen erakunde publikoa udala da. Batez ere udaltik abiatzen da politikagintza. Udalak dira politikaren erroa. Berebiziko garrantzia, hortaz, udal-ordezkariek herriak aukeratuak izatea edo ez izatea. Eta hemen dago, batez ere, ez beste inon, demokraziaren giltza.

Garai bateko udal-ordezkariek ez ziren iraupen luzerako. Bazen garai bat urtez urte aldatzen zituztenak. Gaur, aldiz, oso bestela gabiltza. Gutxienez lau urterako aukeratzeko ditugu, eta honek badu arriskurik, besteak beste: hierarkizazioa, burokrazia, amigismoa, ustelkeriak... eta horrelakoak sortzeko.

Egunean-egunean ari dira abiadura haundienarekin politikoak profesional bihurtzen. Egunean-egunean beren postuei edo poltronei atxikitzen, honela, herritarrengan ezin pentsa ahalako desilusia sortuz. Inkesten arabera ehuneko handi batek, herritarrek, ez du politikariengana sinesten; politikari ez dio sinetsgarritasunik.

Zer egin, orduan, herritarrek beren instituzioetan sinesteko? Ez dago erremedio errezik. Gaur-gaur ezinbesteko sendabelarra hauxe jotzen dut: instituzioetan parte hartzea.

Horretarako Usurbilgo Udala bere sail edo batzordeko aholku-batzarrak sortzen ari da herritarrek eraba-

kietan parte hartzeko. Dagoeneko lau daude martxan: euskara, kultura, gizarategintza eta nekazaritza.

AHOLKU BATZARRAK

Aholku-batzarrak bere sailari dagokion edozein gai edo arazoren aztertzaile, supertzaile eta eragile izan behar du.

Aholku-batzarra denentzat irekia da, beraz, herritar ezberdinez osatua; edonor, herritar, joan daiteke hitz egiteko eta botoa emateko eskubidearekin.

Legez ezinezkoa bada ere, hemen hartutako erabakiak behinbetikoak izan behar dute. Honetarako borondate politiko eta herritarrenganako konfiantza ezinbestekoa da. Aholku-batzarra desegiteko arriskua gerta daiteke bestela jokatuz. Hemengo herritarrek sakondutako hainbat gai eta erabaki, gero hauek legez "vinculante" ak ez direlako udalak onartuko ez balitu, laister aspertuko liriateke. Bai azkar!

Euskal herriaren historia irakurtzen ari naiz, eta bertan ezer galtzekorik ez duen paragrafoarekin amaitu nahi nuke idatzi hau.

Honela dio hitzez hitz, batzarkideak izateko autagaiak nolakoak izan behar zuten adierazteko:

"...herrietako jenderik sustraituena eta egokiena behar zuten izan, eta oraindik gehiago pentsatzen dakiena, arazoak eztabaidatzen eta erabakiak hartzeko gai dena..."

Alazankoa! Jenderik sustraituena eta egokiena, eta hau guztia gutxi balitz, pentsatzen, eztabaidatzen eta erabakiak hartzen dakiena. Arraioa-arraioa!, ez zekiten ezer. Jaso nahi duenarentzat bada hor pagotxarrik. Bada hor hausnarketarrik.

Eta besterik gabe, honela bukatzen dut.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Eusebio Txapartegi Sarasola

Harakinaren lana gogorra den arren, idi-demak ikustera joateko denbora hartzen du ahal duen gehienetan, txikitatik afizio haundia baitu .



Noiz hasi zinen harakin lanetan?

Orain dela hogeita hamazazpi urte hasi nintzen, 1963an. Hasieran hamabi urte egin nituen harategi batean eta gero, nire kontura hasi nintzen.

Lan gogorra al da?

Ordu asko eskatzen ditu eta kontu haundiarekin ibili beharra dago. Jendeak ere asko exijitzen du, kalitatea eskatzen du, baina batzuek horrez gain prezio ona izatea ere eskatzen dute. Bietako bat eskatzen duenarekin moldatzen zara, baina biak eskatzen dituenjendearekin zaila izaten da.

Zer da jendeak gehien eskatzen duena?

Piezatik hasita, kadera, solomilloa... eta horrelakoak.

Orain "behi eroak" direlakoekin dabilta gora eta behera. Eragiten al dizu horrek?

Gehiegi ez, baina egia da mesederik ez duela egiten. Nik hemengo haragia edukitzen dut, baserrikoa, eta ahal dudan neurrian Usurbilgoa. Batzuetan kanpora ere jotzen dut, baina oso gutxitan.

Idi-demak asko gustatzen zaizkizu, ezta? Ibiltzen al zara idiekin?

Normalean ikustera joaten naiz, batera eta bestera, baina egia esan ez naiz gehiegi joaten. Pare bat aldiz ibili izan naiz Usurbilen bertan idiekin, baina ja ez naiz ibiltzen.

Nondik sortu zaizu afizio edo zaletasun hori?

Txikitatik izan dut zaletasuna. Baserrian idiekin ibiltzen ginen aitari laguntzen eta txikitatik bizi izan dut.

Nola ikusten duzu gaur egungo egoera?

Baserrietan ez da idirik egoten. Orain demarako bakarrik erabiltzen dira eta pixkanaka-pixkanaka jeisten ari dela iruditzen zai t Gainera jende gazteak ez du gehiegi jarraitzen. Galdu ez da galduko, baina asko ari da jeisten.

Azaroaren 1ean Usubilen egindako proba ze iruditu zitzaizun?

Ikuskizun polita izan zen. Marka bezala baxu gelditu zen eta batzuk lotsagarria izan zela esaten dute, baina ni ez nator bat horiekin. Niretzat garbi gelditu zen, behin leku batetik pasata, ondoren ez dutela pasa nahi izaten. Ahalegin haundia izan zen eta ni pozik gelditu nintzen.

Apostu zaila zen orduan.

Bai, oso zaila zen.

3800 kiloko harria izateaz gain lau idi elkarrekin lotzeak ere bere zailtasunak izango ditu, ezta?

Bai. Moldatu egin behar dira. Bi idierekin hiru itzai jartzen dituzte, baina lau idierekin ibiltzea oso zaila da. Hor garrantzitsuena saiatzeta izan zen. Jende asko bildu zen eta oso polita izan zen. Niri pena haundia ematen dit jendeak lotsagabekeria izan zela esateak.

gorriti
EDARITEGIA
kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

TABERNA-JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44

TXOKOALDE

Iñaki Labaka



Gure altxor txikia eta preziatua

Azken urte hauetan perretxiko bila joatea modako bihurtu da. Amaitzear dagoen udazkenean ez da giro izan gure inguruko txokoetan, perretxikuak handik eta perretxikoak hemendik...

Inoiz baino jende gehiago ibili da biltzeko ahaleginetan eta batek baino gehiagok baita gozatu ederra hartu ere, uzta oso politak izan baitira. Batez ere ontto asko bildu dituzte.

beste norbaitek kendu baino lehen. Gure auzoan jakina da zubi inguruko bazterrak direla estimatuenak eta hantxe ikusten dira farolen argi gehienak gaueko iluntasunean.



Orain, berriz, gabon usaina badatorkigu eta dagoeneko hasi dira auzo batzuk, baia eta farola hartuta, ibaiertzera inguratzen angulak harrapatzeko irrikitan. Goiz joan eta hor egoten dira marea noiz igo zain, txoko gustukoena hartzen

Pasa den neguan Sagarzoetatik gure txokoko bidea ibaian gora primeran aurkitu bazuten (angula erruz harrapatu baitzen), badirudi aurten oraingoz zeharo galduta dabilzala. Entzun dugunez, saiatu arren, ale batzuk soilik harrapatu dituzte.

Aurrerantzean harrapatu beharko gabonetan angulak jan nahi badira behintzat.

Harrapatu ezean, angulak honelako prezioarekin jarraitzen duen bitartean bere imitazioarekin konformatu behar.

KALEBERRI

Jokin Zubiaur



Festa soil bat baino gehiago

Festa soil bat baino gehiago izan zen larunbatekoa. La Polla taldearen kantu batean badira gazte alai batzuk, deseroso zeudenak. Beren jarrera zoriondu eta ospatzeko festa izan zen.

Arrakastatsua izan zen, gainera, egunkari batean irakurri dudanez Usurbilgo biztanleen kopurua gainditu omen zuten bertaratuek, 5.500 pertsona, hain zuzen ere.

Bestalde, esan behar neroni ere intsumisoa naizela eta, hau dela eta, fiskalak lau urteko inhabilitazioa (erakunde publikoetan) eskatu berri duela bekatu hori zigortu asmoz.



Hala eta guztiz ere, ez dakit zein zentzu duen nire egoeran modu honetan inuzentearena egiteak. Izan ere, ikasle gehienek bezala, luzapena eska bainezakeen soldadutzatik erabat

libratzeko. Are zentzu guxtiago ikusten diot nire erabakiari gaur egungo egoera soziopolitikoan.

Bukatzeko, nire iritzia alde batera utzita eta ez dakit zein iritzirekin, Usurbilgo Gazte Asanbladak antimilitarismoak orain zein bide eta jarrera hartu behar dituen eztabaidatzeko bilera antolatzen zuten pasa den asteazkenean, hilak 22an.

Jaiaren beste alderdi bati helduz, ez dakit frontoi inguruan bizi direnek barkatuko gaituzten, baina, egoera penagarrian utzi genuen herria, bai herria!! Ez frontoia soilik.

KALEZAR

Joseba Pellejero



Datorren urtera artekoak

Iepa noauazaleak! Idazteko txanda ailegatu zaidan honetan, lehendabizi, zorionak



eman nahi nizkieke, bai **Noaua!**n lanean diharduten langile guztiei eta baita aldizkari honen irakurleria guztiari.

Bost urte ez dira alferrik pasatzen gure herrian eta hamai-ka kontu eta gertaeren berri jakin dugu denboraldi honetan gure herriko hamaboskariari esker. ZORIONAK eta segi bide beretik.

Bestalde, Kalezarko kronista zaharrena den honek, **Noaua!**n bigarren zientoa hasteko parada izango du, historikoa, alajaina!

Aurreko alean argi utzi zuen Andonik zer nolako egoeran aurkitzen den gure auzoa. Nik, berriz, gora-behera, ezker-eskubi miatu eta ez dut

inolako berri edo albiste interesgarririk topatzen, hau dek marka, hau!

Agurtu aurretik, dagoeneko jakingu duzuen arren, Kalezarko ermitan aspaldi honetan elizkizunik ez dela ospatzen esango dizuet, alboko moja etxean ospatzen baitira aspalditxo honetan. Norbaitek "mojetara" joan nahiko balu oraintxe du aukera ederra, larunbatero arratsaldeko 18.30etan izaten den elizkizunean, hain zuzen ere. Herritar dexente inguratzen da, gainera, meza honetara.

Hau, behintzat, badakizue. Nire ahaleginak ez dira nahikoak izango baina datorren urtean etorriko naiz gai berriekin, bitartean, ADIO!

ATXEGALDE

Maria Jesus Urbieta



Santa Luziaren atarian

Aurten ere Santa Luziaren atarian gara, egun hori ospatzeko prest, gainera.

Etxeko-andreak afari gozo baten inguruan bilduko gara broma giroan ordu alai batzuk pasatzekotan, bateko "modistilla" direla eta besteko botoiak josten ez dakitela esanaz, beti umoretsu, hori bai.

Aurretik jatetxea aukeratu, mahaia gordetzeko eskatu eta eguna noiz etorriko irrikitan zain egoten gara, aspalditik datozen ohiturak baitira hauek. Batzuk lehen josten aritutakoak dira, beste batzuk, berriz, oraindik orain jostun lanetan aritzen direnak. Betidanik elkartu izan dira emakume hauek egun horretan afaltzeko. Guztiei datorkigu, gainera, esaera

zahar bat egun horretan: *Santa Lucia, corta la noche y alarga el día.* Orain ere premiaz esango genuke honako esaera, ordubete aurreratze horrekin arratsaldea oso motza gelditzen baita eta iluna oso azkar etortzen zaigu gainera.

Badira egun hau urtero ospatzen duten koadrilak, hauetako bat Gaztañaga auzoan, hain zuzen ere. Usurbilen, bertako etxeko-andreak eta baita kanpoan bizi direnak ere,

egun horretan biltzen gara eta koadrila polita osatzen da.

Ziur Euskal Herriko txoko guztietan badirela ohitura honi eusten diotenak.



SANTUENEA

Gas Naturala

Isaak Muñoz



Egunak pasa dira gasaren hodiak San Esteban aldetik ekarri eta ibai azpitik Usurbil aldera pasaz jarri zituztela. Askok ia ahaztua ere izango dute menditik beherantz zuloak eginez nola jarri zituzten hodiak, baita ibaian nola aritu ziren ere, lehenengo ibaia alde batetik eta gero bestetik zulatuz.

Ordudanik nahiko euri bota du eta auzoan oraindik etxean gasa duen inor ez dago. Beranduago, eskutitzak bidali zituzten, bere etxean gasa nork nahi zuen jakitearren. Bilerak ere izan ziren gasaren kontua zela eta.

Ez dakit beste auzoetan dagoeneko gasaren instalakuntzak jarrita ote dauden, Kalezarren, behinik behin, hasiak dira. Oraingoan ere gure auzoa azkenetarikoa izango da, gutxienez lanak denbo-



ra gutxi barru hastea espero dugu.

Bestalde, azkenaldi honetan tiro hotsa nagusi da gure inguru hauetan. Ez dakit txori asko pasa ote den, baina tiro hots ugari izan da Urdaiaga aldean. Txoriak baxuegi ez ote dira pasako, baten bat belarririk edo, kasu txarrenean, begirik gabe utziko dute bestela.

Azkenik, Mari dendaren aldameneko bidean dagoen txapa haundiaren egoera tamalgarria azpimarratu nahiko nuke. Ez ote dute konponduko baten batek txorkatila okertzean!

URDAIAGA

Intsumisio eguna dela eta ez dela

Alazne Begiristain



Hemen goialdean, udazken koloreak harrapatu ditu zuhaitzak, udazken giro ederra dago...baina ezer berririk ez.

Auzokide batengana joan eta aspaldiko istoriren bat kontatzeko eskatzea otu zitzaidan. Baina nik banuen etxean institutuko lan bat zinta batean grabaturik, guda kontuen inguruko zinta bat.

Intsumisio eguna izan dela eta ez dela, honen inguruan idatziko dut gaurkoan. Gaur egun derrigortasun izaera galdu duen soldaduskara joan ziren makina bat gazte gure auzotik, baita gudara ere.

Kontutxo hauek esan zizkidaten hauen inguruan; hiru egun jan gabe pasa ondoren tiro bat jaso omen zuen hauetako batek sabelean. Aurkariak zelaiari su eman eta ibaia igaro behar izan omen zuten korrika ihes eginez beste batzuek.

Hasieran ibaian ur txikiak omen zeuden, baina segituan hartu omen zuen sakonera. Bizkarrean honako hau zeramaten ihes egin nahi zutenek: ehun bala, lau esku-bonba, motxila trastez josita eta

fusila bizkarrean. Nolabait igeri egin eta konpainiko zazpi han gelditu omen ziren, itota.

Ez zen samurra izan, ez horixe. Gure auzokideek ere badituzte hamaikatxo kontu kontatzeko, ezta?



AGINAGA

Oskar Santamaria



Behin eskatzen hasita

Oraingoan gure auzoak etorkizunean izango duen pilotalekuari buruz hitz egin behar dut.

Herrian ere frontoi bikaina dugu, horretan dudarik ez da. Galdetu bestela larunbatean izan ziren 5.500 pertsoneri. Hauen artean pilotazaleak izango baziren ere, ziur gehien-goak parranda nahiago zuela pilota baino.


Bide honetatik, zaila da herriko pilotalekua pilotaz aritzeko moduan topatzea, bateko festak eta besteko ekitaldiak direla medio. Hau ikusita, ona litza-teke gure frontoi berria pilotan

jokatzeko izatea (hala ere, ixil-ixil esango dut noizean behin festatxoren bat edo beste izateak kirolari onenaren gorputzari ere poza ematen diola).

Gure pilotalekuak, nola ez, soka-tiran entrenatzeko modua eskaini beharko luke auzoko "harrobia" trebatzeko. Adibide polita dugu Orendaingo pilota-

lekuan. Bertako paretan tentsatutako soka bat dago, polea antzeko bat. Honi tira eta tira aritzen dira bertako sokatiralar-riak.

Gainera, soka-tirako harrobiaz gain, orain dugu aukera pilotari iaioak osatzeko, haurra ekinaren eginaz egiten baita pilotari.



ZUBIETA

Xabier Arregi



Zimitorioa

Elizaren zaharberritze lanak hizketarako gai hartu ditugu azken asteotan. Abuztuan hasi zirenetik hainbat aldaketa egin dira elizaren barruko nahiz kanpoko aldean: teilatua konpondu da, erloju bat tokiz aldatu da, zimitorioari teilatua kendu zaio eta elizaren barruko aldean ere egiten ari dira obrak.

Barruko obra horiek direla eta, joan den igandeko elizkizuna ez zen elizan egin, eskola txikietan baizik. Eta, dakigunez, jendea oso gustura geratu omen zen leku aldaketa horrekin. Tira, ez da seinale

txarra. Berritasunak beti izaten du halako grazia erakargarri bat. Kontua da herriko etxe bat baliatu dela elizkizunetarako, horrelako kasuetan normalea denez. Ikusiko dugu ea hemendik aurrera eliza erabiltzeko aukera ematen den herriko zenbait ekitalditan.

Azken egunotako hizpide nagusia, ordea, zimitorioa izan da. Kendu zaio teilatua eta hara non nabarmendu den harri landu, arku eta apaingarri interesgarriak dituela. Nonbait, elizak zimitorioa eranskin duela agerian geratu da. Eta orain zalantza: zer komeni da?

Dagoenean berritzea ala saihetsean berria egitea?

Erabakia hartzeko herri-bilera baterako deia egin zuen Obretarako Batzordeak, azaroaren 20rako hain zuzen ere. Kronika hau idaztean ez dakigu zein erabaki hartu den, baina, erabakitzen dena erabakitzen dela, nire ustetan ondo planteatu da auzi honen irtenbidea. Nik behintzat garrantzi handia ematen diot horrelakoetan herri-bilera zabala egiteari. Azken batean, zimitorioa non jarri, denoi dagokigun gaia baita.

“Usurbili buruzko dokumentazioa badago, baina mamitsua gutxi”

Udalak aginduta zenbait proiektu martxan daude dagoeneko. Ana Isabel Rodriguez eta Gotzon Garmendia andoaindarrak, adibidez, uztailan hasi ziren herriko elementu historikoak aztertzen. Aranzadi elkarteko David Zapirain da zuzendari teknikoa eta denbora honetan elementu historiko horiek kokatzeaz gain dokumentazioa lortzen aritu dira. Lan honen nondik norakoa jakin asmoz beraien egon gara.

Zer lan egiten ari zarete?

Usurbilen dauden elementu historiko garrantzitsuenak aztertzea da gure lana. Horretarako inbentario bat egin genuen eta mapa batean kokatu genituen garai batean herrian zeuden errota, untziolak, burdinolak, etxeak etab. Alde batetik Irisasi mendi inguruan daudenak: Urdaigako konplexua (etxeak, burdinolak, errota), Erroizpe ondoko zetaola... Beste aldetik Aginagako untziolak. Behin hauek kokatu ondoren hasi ginen dokumentazio lanarekin.

Elementu historiko horiei buruzko dokumentazio asko aurkitu al duzue?

Kokatze lan horrek denbora asko kendu digu, erabilitako iturriak mota askotakoak izan baitira, orain arte elementu historiko hauei buruz publikatu dena alegia. Baina dokumentazio berria bilatzen hasterakoa arazo ugari izan ditugu. Erreferentziarik gabe edo erreferentzia oso laburra duten elementuen inguruan lehen mailako dokumentazioa lortzea ez da erraza. Izan ere, Usurbilek ia ez du artxibo historikorik. XX.



mendearen hasieran artxibo hori udaletxearekin batera erretzen, eta garai hori baino lehenagoko artxiborik ez dago.

Zein artxibotan ibili zarete dokumentu bila?

Usurbilgo aztarnak aurkitu zitezkeen Gipuzkoako artxibo guztiak goitik behera arakatzeko bide bakarra. Oñatin dagoen “Protocoloen artxiboa” eta Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibotegi Orokorra izan dira gure dokumentazio iturri nagusienak. Lehenengoan, XVI.mendetik XIX. mendea bitarteko Usurbilgo eskribauen notari dokumentuen azterketa egitea izan da gure helburu nagusia. Hala ere, oraindik bukatzeke daukagu lan hau, XVII. mendearen bigarren erdia eta XVIII. men-

dea falta baitzaizkigu. Milaka orrialde dira, Usurbilgo eskribaria guztiak aztertzeko bakarrik. Bigarrenenean dokumentazioa anitzagoa da, negozio ezberdinetako dokumentazioa aztertu dugu, korrejimenduak...

Beste artxibotegi batzutan ere izan zarete ezta?

Aurrekoek gain, artxibo partikularretara ere jo dugu. Atxegatar familiarekin zerikusia duen San Millan markesaren artxiboan murgildu gara, adibidez, eta egia esan espero genuena baino gauza gutxiago aurkitu ditugu. Saroe jauregiko artxiboa aztertu ahal izateko pausoak ematen ari dira... Jabego errejistroan ere erreferentzia batzuk aurkitu ditugu, elementu horien jabetza historian zehar eskutik eskura pasatzen nola joan den aztertzeko. Hala ere, hemen ez dugu nahi dugun guztia ikusi. Hasiera batean oso jarraia ona egin ziguten, baina guk eskatutako guztia ez dute gure eskura jarri, erdia bakarrik. Azkenik, estatuko artxibategietan ere gauza gehiago aurkituko dugulakoan gaude.

Guk, elementu historikoen inguruko ibilbide turistiko baten proposamen bat egingo dugu

Zuek nahi zenituen dokumentuak aurkitu al dituzue?

Dokumentazioa badaukagu, baina guk uste baino gutxiago bete nahi ditugun helburuetarako. Izan ere, dokumentazio horretan familia arteko auzi ugari daude, behi antzua salteagatik, egurrez betetako gurdia aldameneko etxeko lurretatik pasatzeagatik... eta tartean familia eta etxe horiei buruzko informazioa aurkitu badugu ere denbora inbertsio haundia da gero laupabost dato ateratzeko. Baina dokumentazio zehatzik ez dagoenez laupabost dato horiek atera beharra dago. Hori izan da lan hau egiterakoan aurkitzen ari garen arazo nagusia: dokumentazioa badago, baina mamitsua gutxi.

Zer egingo duzue orain arte bildu duzuenarekin?

Bildu dugun dokumentazio lanarekin datu-base bat egiten ari gara. 250-300 erregistro inguru sartu ditugu dagoeneko beti ere bi taldetan banatuta: dokumentazioarena bat eta bibliografikoa bestea.

Eta egiten ari zareten lan guzti horrekin?

Printzipioz guri udalak lana planteatu zigunean argi jarri ziguten lan historiko bat ez zela izango. Planteatu zigutena zen historia lanean eskarmentua zutenak behar zituzte-

la elementu historiko horiek dokumentatzeko, baina ez Usurbili buruzko lan historiko bat, interpretazio historiko bat egiteko. Herriko baliabide historiko-kulturalak zein diren jakin nahi dute gero erabilera turistikoko bat egiteko aukerarik badagoen ikusteko. Guk, elementu historikoen inguruko ibilbide turistikoko baten proposamen bat egingo dugu. Ibilbide horretan, aurreko mendeetan Usurbilgo ekonomia eta gizarte egituran adierazgarri izan diren elementuak bisitatu, ikusi eta aztertzeo aukera egongo litzateke.

Zer ibilbide da zuek aukeratu duzuen?

Elizaldean hasi, Txokoaldetik barrena San Estebana joango litzateke. Hemen, garai batean aingura lantegia zegoen Gillisasti baserria dago, Oako San Esteban baseliza ere bai, errota eta burdinola izandako Txanka, Gokoerrota... Hortik Erroizpe ondoko zetaolara pasako ginateteke, gero Txokolaldera joateko. Hemen Zatarain jauregia eta Beerrota daude. Ibilbide hau Aginagan bukatuko litzateke Mapilgo untiola zegoen eremua hain zuzen ere. Eremu honi buruzko ikuspegi ekonomikoa, soziala eta historiko-artistikoa ematea litzateke gure lanaren helburua.

Josu Aranberri

Erroizpe presara iritsi baino lehen dagoen zetaola

Kontuan hartzeak

“ Erroizpeko presa bidean dagoen zetaola eraikuntza ikusgarria da, baina dokumentazio gutxi aurkitu dugu horretaz. Guk dakigula izen konkreturik ere ez dauka. Badakigu, inaugurazio agiri baten arabera, bere garaietan Alfontso XII.ak bere oneritzia eman eta goraiatu egin zuela eta estatuko lehenetariko bat dela, lehena ez esateagatik. Dirudienez esperimendu modura jarri zuten zetaola hau, arrak haritzaren hostoarekin hazten hasi baitziren hemen. Hala ere, oso denbora laburrean iraun zuen, 15 urte inguru, eta horrek asko harritzen gaitu, inbertsio izugarria egin baitzuten. Hor konplexu ikusgarria dago, eraikuntza bera, erabiltzen duten materiala, bere dimentsioa... Dagoen lekuan egoiteagatik pentsatzen dugu saikera oso garrantzitsua izan zela, serioa, baina espero zutena baino askoz gutxiago atera zutela. Apustu ekonomikoa eta politikoa haundia izan zela dirudi, baina guzti hau dokumentatu beharra daukagu. ”

“ Orain arte egin dugun azterketaren ondoren zera esan dezakegu: XVI-XVII-XVIII. mendeetan ez ziren bertako eskribauak erabiltzen beren tratu, hitzarmen, testamendu edo ezkontza kapitulazioak egiteko, baizik eta inguruko herrietako eskribauak ere erabiltzen zituzten, ospea zutelako batzuetan, ezagunagoak zirelako besteetan edo eta hori horrela egitea modan zegoelako agian. Hori dela eta inguruko herrietako eskribau artxiboetan Usurbili buruzko informazioa aurkitu daiteke, baina hori guztia aztertzea ezinezkoa da ia. ”

Xabier Pikabearen dimisioa

Usurbilgo EH-ren izenean, **Xabier Pikabearen** dimisioaren berri ematera goazkizue, eta berri hori ematean ezin dugu ahaztu Xabier Pikabeak Udalean euskara normalizatzeko egindako lan guztia. Bera zinegotzi zenean, gure herriak baldintzak betetzen zituelako eta Xabierrek egin zuen lanaren ondorioz, Usurbilgo Udala UEMA udalerrri euskaldunen mankomunitatean sartu zen. Euskara Udalean, herrian, gure inguruan... normalizatzeko pauso handia izan da UEMAko partaide izatea, eta horren ondoren euskara-

ren normalkuntzan lan asko egin da. Euskararen aldeko lanean ez dago treguarik, lan gogorra, egunero egunero, konstantziaz egiteko lana, Euskal Herri euskalduna lortzearen bidean etenik izan behar ez duen borroka, eta horretan **Xabier Pikabea** exenplua izan da. Egindako lan guztia goraitpatzea besterik ez zaigu gelditzen.

Baina hala ere, talde funtzionamenduan arazoak izan dira, eta horren aurrean dimisioa aurkeztu du. Usurbilgo Euskal Herritarrok-en Herri Batzarrean

dimisioa aztertu eta onartu egin da, eta hauteskunde zerrendan ondorengo lekuan dagoen **Koldo Lizaso** izan da bere postua betetzeko aukeratu.

Gure agurrik beroena eskaini nahi diogu Xabierri, ongi etorria berriz Koldori, ez du lan makala Xabierrek utzitako hutsunea betetzen!

Xabier Pikabearen dimisioa eta **Koldo Lizasoren** kargu hartzea azaroaren 28ko Udalbatzan onartuko da.

USURBILGO EH.

Bide zuzena aurkitu nahian

Herrian egiten ari diren Hobren ondorioz ibilgailua erabiltzen duenak nahikoa lan badu nonbaitetik irten edo nonbaitera sartzeko orduan. Paris etxe aurreko parkea egiten ari direnez, Zubiaurreneatik gora Gaztañagako errotondara joateko bidea itxia dago, eta norabide hori hartu nahi dutenek Kale Nagusitik Zubiaurrenea atzeko bidea hartu behar izaten dute.

Kale Nagusiko bidegurutze horretan nahaspila ugari izaten da. Kamioi haundiak ez aurrera eta ez atzera gelditzen dira batzutan, eta horrez gain hortik kotxe ugari pasatzen dela kontuan hartzen badugu bidegurutze horren egoera ez da batere ona. Horrez gain, pixka bat aurrerago joaten

bagara zuloz betetako bidea topatzen dugu, eta euria egiten duenean, azken asteetan bezala, putzu galantak sortzen dira.

Hala ere beste kontu bati heldu nahi nioke. Norabide aldaketa hauen ondorioz Gaz-



tañagako errotondatik Kale Nagusira joan nahi duenak hiru aukera ditu: udaletxe aurreko bidea, San Ignazio ondoko irteera eta Atxegaldeko irteera. Hala ere, asteburuetan kaxkoa itxi egiten dutenez lehenengo bidea ezin izaten da erabili asteburu eta jai egunetan.

Hauxe da nire galdera: lan hauek bukatu bitartean Atxegaldetik udalera doan bide hori ez ixtea ez al litzateke hobe izango? San Ignazioko bidea extua da, eta horrez gain bide bukaeran dagoen koxka ere ez da nolana hiko. Ondo iruditzen zait frontoi atzeko bideak ixtea baina Atxegaldetik udalera doan bidea ez luketela itxi behar iruditzen zait.

J.A.A.

Zinkildegia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behea,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87



**ZUMETA
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK (Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz.
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez.
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piliko piperraz haragi saltsetan.
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea 3.675 pzta. (pertsoneko)

P A T R I

J A T E T X E A

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6,
Tel.: 943 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)



Markel Olaizola: “Patxaran naturala baloratzea nahiko nuke”

Aurten hirugarren postua eskuratu du Aretxabaletan urtero izaten den Patxaran Txapelketan. Bere iritziz ez da patxaran naturala behar den bezala puntuatzen eta marka komertzialek egiten dutena hartzen dute erreferentzia bezala epaimahaiok, baina berak patxaran naturalaren aldeko apustu garbia egiten du.

Noiz hasi zinen patxarana egiten?

Aspaldi hasi nintzen. Taberna bat eduki nuen orain dela hemezortzi urte eta orduan hasi nintzen pixka bat patxarana egiten eta ordutik aurrera beti izan dut gauza ahalik eta naturalenak egiteko gogo. Ikusi nuen patxarana gehienbat komertzializatzekeo egiten zela eta era askotakoa izaten zela baina ez naturala. Horregatik nik naturala egitea erabaki nuen. Hala ere, etxean egindakoa ezin da saldu erre-gistrorik ez duelako.

Nola egiten duzu patxarana? Era bereziren bat erabiltzen al duzu?

Patxaran naturalak berez ez du berezitasun haundirik. Anis ona behar du, nik beti errefinua erabiltzen dut eta basarana 250 gramo litro bakoitzeko. Baina nik digestiboagoa izateko kamamila, kafe ale batzuk eta kanela pixka bat botatzen diot. Basaranak heldua izan behar du bestela ez baitu kolorerik hartzen eta ez da ona ateratzen.

Noiz hasi zinen txapelketan parte hartzen?

Orain dela bost bat urte. Zerainera joan ginen azoka



biologiko horietako batera eta han jakin genuen Aretxabaletan txapelketak egiten zirela eta parte hartzera joan ginen. Dena den konturatu naiz han aurkezten den patxarana ez dela naturala.

Irabaztea al da ba bilatzen dena?

Ez baina epaimahaiak komertzializatzen diren patxaranekin parekatzen ditu aurkezten direnak. Patxaran naturala bizi samarra da, baina marka komertzialek egiten dutena samurragoa da eta benetako patxaranaren erreferentzia galduta dago. Guk patxaran naturala eramaten dugu eta hori ez da behar den bezala puntuatzen. Esan izan diegu baloratzen dutena zer den jakitea komeni dela eta badirudi orain hori kontutan hartzen hasi direla.

“Epaimahaiak komertzializatzen den patxarana hartzen du erreferentzia bezala”

Non izaten dira txapelketa hauek? Jende asko aurkezten al da?

Hemen inguruan Aretxabaletan bakarrik. Gu orain dela bost urte hasi ginenengan hogeita hamabost inguru ginen eta aurten hogeit bat aurkeztu gara.

Aurten hirugarren postua lortu duzu. Zer suposatu du zuretzako hirugarren postu hori eskuratzeak? Zein izan da saria?

Gehienbat poztu nauena patxaran naturala baloratzen hasi direla da. Saria trofeo bat izan da eta pertsonalki ez dit ezer suposatu.

Lan handia ematen al dizu patxarana prestatzeak?

Ez. Denbora librean egiten dut.

Elkarteren batean sarturik al zaudete?

Ez eta gainera zaila izango litzateke. Bakoitzak era desberdinak baititu eta elkarte bat sortzeak arauak jartzea dakarrenez, istiluak sortuko lirateke.

Olatz Lasagabaster

Santa Zezilitako ospakizunak iritsi dira

Urtero bezala, aurten ere pasa da azaroaren 22a. Askorentzat asteazken soila izango zen, baina beste askorentzat ez. Azken hauek ongi asko dakite Santa Zezili eguna ospatzen dela azaroaren 22an, musikarien eguna, alegia. Zumarte Musika Eskolak eta Usurbilgo Txistulari Taldeak kalera irtenaz ospatuko dute egun hori, eta bide batez, herritar guztiei beraiekin batera elkar-tzeko deia luzatuz.

Hainbat eta hainbat gauzen inguruko ospakizunak izaten dira urtean zehar, eta tartean, musikariek ere zergatik ez dute, bada, beren eguna ospatuko? Gaur egun musikaz inguratuta bizi gara. Egunero, orduro, minuturo entzuten dugu musika etxean, autoan, tabernan, kalean edo edozein lekutan. Batzuek rock-a, besteek bakailaooa, eta besteek trikixia, klasikoa, blues-a, jazz-a, pop-a edo dena delakoa. Gustura entzuten dugu musika, bai lasaitzeko eta bai mar-txan sartzeko. Bakoitzak ematen dio nahi duen funtzioa eta lekua. Denbora ere berdin, gutxiago edo gehiago entzun, norberaren esku dago. Gauza da aukera zabala dagoela.



Eskaintza hori egoteko, ordea, nork eginga egon behar du. Hau da, musikariak behar dira. Horrez aparte, beste hainbat gauza ere bai, baina hasteko, musikariak behintzat bai.

Musikari horiek topatzeko ez daukagu urrutira joan beharrik. Herrian uste baino gehiago dauzkagu. Ikusi besterik ez dago Zumarte Musika Eskolan zenbat dabilzan instrumentuak jotzen ikasten: bibolina,

gitarra, txistua, flauta, saxofoia, perkusioa, eskusoinua...

Usurbilgo Txistulari Taldeak orain dela 31 urte ekin zion bere ibilbideari, eta urte horietan zehar esnadeiekin herritar-rrak ohetik jaikiarazteaz gain, hainbat kontzertu ere eskaini izan ditu. Dantzarien aldamean ere hor jarduten dira beti.

Herriko trikitilariak ere behin baino gehiagotan jarri dituzte gure hankak dantzan, auspoa berotzeraino. Irriu abesbatzeko lagunek, berriz, hankak ez baina eztarria dute bero. Hori horrela mantentzen duten bitartean, ez dago isilduko dituenik.

Era berean, asko dira bi ma-kila eta beste egur pare bat hartu eta txalaparta jotzen

**Usurbilgo
Txistulari Taldeak
orain dela 31 urte
ekin zion bere
ibilbideari**

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



ESTRELLA
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Zubiaurenea, 10
Tlf. 943 37 18 07- Fax.: 943 37 63 41

XABIER

EDARITEGIA

**Etor zaitetz,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak**

- ✗ Idiazabal gazta
- ✗ Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66

Kale Nagusia, USURBIL
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 13



JARRI

**HEMEN ZURE
PUBLIZITATEA**



dutenak ere. Horien antzera, baina erritmo desberdinez, herriko musika taldeak ere etenik gabe entsaiatzen ari-zen dira. Horien abestiak tar-teka kontzertuetan zuzenean entzuteko aukera izaten dugu.

Garbi dago irratian, CDetan eta kasetetan musika mota ugari entzuten dugula, baina baita herrian zuzenean ere. Aipatutakoak adibide batzuk dira, baina gehiago ere badaude eta egongo dira, noski. Zorionak guztioi Santa Zezili eguneko partez.

Bakoitzak jakingo du nola ospatu duen edo ospatuko duen egun hori. Dakiguna da Zumarte Musika Eskolak eta Usurbilgo Txistulari Taldeak herriarroi kontzertuak eskainiz ospatu nahi dutela. Horrela, azaroaren 24ko eta 26ko kontzertuetarako gonbitea luzatu digute. Kontzertuoetan entzungai izango dena, berriz, ondorengo egitarauetan duzuen da. On egin eta gozatu musikaz!

Ainhoa Azpiroz

Herriko musika taldeen egitaraua

Azaroak 24, ostirala arratsaldeko 19.30etan

Zumarte musika eskolako ikasleen kontzertua Udarregi ikastolako areto nagusian.

Egitaraua:

Hilbehera..... Izukaiz

Alboka: Josune Arretxe/Alvaro Mendizabal
Pianoa: Estibalitz Lazkano Klarineta: Laura Chamorro

Gipuzkoako buelta..... Oskorri

Alboka: Josune Arretxe eta Alvaro Mendizabal
Kitarra: Eneko Garcia Bajoa: Antton Aranburu
Perkusioa: Martin Larrañaga

Seaska kanta..... Brahms

Musika mintzairako taldea

May Song..... Suzuki

Bibolina: Aitor Zubimendi Pianoa: Izadi Azkonobieta

Chorus from, Judas Maccabeus

Bibolina: Olatz Loidi Pianoa: Estibalitz Lazkano

Maritxu..... Herrikoia

Txistuak: Maddalen Cardenas, Imanol Arrojeria eta Garazi Lizaso

Mexikar jaiak..... Tillo Schlunck

Eskusoinu taldea

The "merry boys polka..... Franz von Suggé

Pianoa: Irati Izagirre eta Itsaso Gonzalez

Negua (Largo)..... Vivaldi

Saxoak: Alazne Begiristain eta Xabier Saenz

Zumarte orkestrak bi kanta abestuko ditu.

Azaroak 26, igandea eguerdiko 13.00etan

Usurbilgo txistulari taldeak kontzertua eskainiko du herriko frontoian eguerdiko 13.00etatik aurrera. Bertan bederatzia abesti eskainiko dituzte: Zortziko, Kontradantza, Alsasua, Itxaropena (fandangoa), Itxaropena (arin-arin), Rapid (polka), Mendiko haizeak, zarra (biribilketa) eta Lou Tamborin de Chicalom. Hala ere, goizeko 11.00etatik aurrera herriko kaleetan zehar txistu doinuak entzun ahal izango dira, kalez kale ibiliko baitira herriko txistulariak.

ALBORTA

HARATEGIA

Etxeko berezitasunak:

- * Oholkiak
- * Txorixoak
- * Kroketak...

Behoko kalea, 4
Atxegalde ☎ 943 36 57 42



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko du

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

BORDATXO

EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

5500 pertsona inguru Intsumisio jaian

Ez zen giro izan pasa den azaroaren 18an izan zen Intsumisio jaian. Arratsalde partean kale animazioa izan bazen ere gaueko kontzertura gerturatu zen jende gehiena eta antolatzaileen esanetan

5500 pertsona inguru gerturatu ziren Usurbila. Jaia goizean goiz arte luzatu zen eta gertakari triste batzuk ere izan ziren igande goizean. Alde batetik udalak kaleak garbitzeko erabiltzen duen ibilgailuari adreilu

bat bota eta leiho bat apurtu zioten udaleko langileak lanean ari zirela. Beste aldetik, Gaztañaga kaleko etxe bateko ate ondoko beira apurtuta aurkitu zuten goizean etxe horretako bizilagunek



Elizako tximistorratza oso egoera txarrean dagoela eta aldatzea erabaki du udalak. Enpresa ezberdinei aurrekontuak eskatu zaizkie eta aurkeztutakoen artean onuragarriena aukeratu ondoren 672.211 pezetako aurrekontua izango du tximistorratzaren aldaketak. Electricidad Izagirrek izango du lan hauek aurrera eramateko ardura, eta diru kopuru hori 2000ko aurrekontutan sartuta ez zegoenez 2001. urteko aurrekontuan sartzeko konpromezua hartu du udalak.



Xabier Pikabea Euskal Herritarrokeko zinegotziak bere dimisioa aurkeztu zion herriko alkateari duela bi aste. Usurbilgo EHK egin zuen Herri Batzarrean dimisio hori onartu zen eta bide batez Xabierren ordezkoa ere izendatu zuten. EHren hauteskunde zerrendan bederatzigarren lekuan zegoen **Koldo Lizasok** hartuko du Xabierrek utzitako lekua. **Xabier Pikabearen** dimisioa eta **Koldo Lizasoren** kargu hartzea azaroaren 28ko Udalbatzan proposatuko da.



27 usurbildar Behobia-Donostia lasterketan

Donostia-Behobia lasterketan parte hartu zuten 10.000 pertsonen artean zeuden azpian agertzen diren usurbildar hauek. Guztira 27 usurbildarrek amaitu zuten 21 kilometro inguru dituen proba. Pasa den azaroaren 13an izan zen

lasterketa honetan usurbildarren artean inork ez zuen ordubete eta hogeai minutu azpitik amaitu. Jarraian dituzue bakoitzaren postua eta denbora; hori bai, azken urteetan bezala ez duzue sailkapenean emakumerik aurkituko.

Sailkapena:

609	MOURA DOURADO, MANUEL JOSE	1:20:45	3585	UGARTE BALERDI, JOXE ANTONIO	1:38:17
823	MOLINA CUESTA, AGUSTIN	1:23:06	4433	UNANUE LOPEZ, AITOR	1:42:06
863	ETXEBERRIA URKIA, HILARIO	1:23:22	4437	ALKORTA MAYOZ JOXE MANUEL	1:42:07
1113	LERTXUNDI AZKUE, KOLDO	1:25:13	4546	ZUMETA BERAETXE, PELLO	1:42:34
1170	URDANGARIN ZUMETA, PEDRO	1:25:33	4609	JUANES MORO, FELIPE CARLOS	1:42:53
1521	OTAMENDI GAZTANAZPI, JOSE MARI	1:27:46	5116	ALMANDOZ ODRIOZOLA, IMANOL	1:45:02
1543	LABAKA LIZARAZU, IGOR	1:27:52	5126	SAEZ PEREZ, PABLO	1:45:04
2050	ANGULO ALMEIRA, TOÑO	1:30:09	5684	LIZARRALDE IRAOLA, J.ANDONI	1:47:46
2090	MARITXALAR ELIZONDO, IBAN	1:30:18	6229	LOITI RODRIGUEZ, EDUARDO	1:50:35
2267	ITURRALDE CHOCARRO, TOMAS	1:31:20	6555	SARASUA ARISTIMUÑO, JON	1:52:22
3083	ORTEGA AÑORGA, GORKA	1:35:44	7291	ASTIAZARAN AIZPURUA, GORKA	1:56:42
3218	OLANO ZUGASTI, ANDONI	1:36:29	8326	SARALEGUI ZUBELDIA, IÑAKI	2:07:20
3409	ERRASTI UBERA, IÑAKI	1:37:30	8354	ASKORRETA ERDOZIA, JOSEBA MIKEL	2:07:39
3546	RIVERO BERISTAIN, ANGEL	1:38:04	8389	AIZPURUA UNANUE, JOSETXO	2:08:12

Lau eta erdiko pelota txapelketako azken aurreko partiduak

Aitzaga Kultur Elkarteak antolatzen duen lau eta erdiko binakako pelota txapelketa azkenetan da dagoeneko. Pasa den azaroaren 10ean jokatu ziren final laurdenetako partiduak eta orduan sailkatu ziren bikoteek azaroaren 24an arratsaldeko 20.00etan jokatuko dituzte azken aurreko partiduak. **Iñaki Errekondo eta Mikel Arroyok Inaxio Arruti eta Koldo Lertxundiren** aurka jokatuko dute, eta **Josu Errekondo eta Jokin Eizagirrek**, berriz, **Mikel Aranburu eta Arkaitz Portularrume** izango dituzte aurrez aurre. Azken partiduak abenduaren 3an jokatuko dira.



TXURRUT

TABERNA

Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel.: 943 36 00 80



TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



Xabier Miguel Ezkerrak 25 urte daramatza herritik urrun eskubiderik gabe

Aurtengo azaroan 25 urte bete dira Xabier Miguel Ezkerra, bere borondatearen aurka, herria utzi behar izan zuenetik. 25 urte hauetan konfinamendua, espetxea, gose grebak eta beste hainbat tortura fisiko eta psikologiko jasan behar izan ditu estatu frantsesaren esku-tik. Hori dela eta, bere bizitzaren nondik norakoak ekarri nahi izan ditugu *Noaua!*ko orrietara.

Xabier Miguel Ezkerra

1954ko abuztuaren 6an jaio zen Cerezo del Rio Tirun herrian (Burgos). Bi urte zituela etorri zen Usurbila.

1975ko azaroan errefuxiatu zen. 1976ko otsailaren 17an OFPRAK errefuxiatu politikoen izaera onartu zion. Hiru urte geroago dokumentua berritzera-koan, ordea, gobernu frantse-sak errefuxiatu euskaldunekiko hartutako erabakiaren ondorioz, ez zuen paper ofizialik hartu. Hala ere, "carte de séjour" delakoa (bertan bizitzeko baimena) eta "carte de travail" (lan egitekoa) berritzen jarraitu zioten. Paben bizi zen.

1986ko urriaren 30ean polizia frantsesak atxilotu egin zuen Paben, **Jose Luis Ansolarekin** batera. Hurrengo urteko irailaren 23an epaitu zuten "Association de malfaiteurs" (gaizkile elkarte) delakoaren akusaziopean. Eskaera fiskala zazpi urtetakoa zen eta kondena, berriz, sei urtetakoa. Fiskalak ipinitako errekurtoa zela eta, 1988ko apirilaren 26an berriz ere epailearen aurrera joan behar izan zuen eta bertan epaimahaiak sei urtetako kondena baieztatu zuen. Ez du extradizio eskaerarik izan ezta espultsio agindurik ere.



Estatu frantseseko hainbat espetxetan egon zen; Paben, Tarbes, Villeneuve sur Lot eta Muret-en. 1988ko azaroa eta Abendua bitartean estatu frantseseko euskal presoek 39 egunez egin zuten gose greban parte hartu zuen.

1991ko apirilaren 30ean askatu zuten Muret-eko espetxetik. Berehala Lille hirian, Nord izeneko departamentuan konfinatu zuten. Euskal Herritik 1000 kilometrotara dago hiri hau, ia Belgikako mugan. Nahiz eta legalki atxilotu zuteneko egoera administratibo berdina berreskuratze-ko eskubidea izan (berehala lanik ez badu langabezia kobratzeko eta osasun mailako kobertura izateko eskubidea- epaileak emandako paperek horrela baieztatzen zutelako-), hau da, estatu frantsesean bizi eta lan egitea

20 kilometrotako erradiotik ezin izan zuen atera Lillen konfinatuta egon zenean

ahalbideratzen dieten dokumentuak, Barne Ministeritza frantsesaren agindua zela eta, hiru hilabeteko berritu beharreko paper bat besterik ez zuen lortu. Hori dela eta, ez lan egiteko baimenik ezta segurtasun sozialik ez zuen lortu. Gainera, 20 kilometroko erradiotik ezin zuen atera.

Konfinamendua hausteko erabakia

Xabier Miguel Ezkerraz gain, **Joxe Martin Sagardia** eta **Jose Luis Seguro**la ere konfinatuak izan ziren. "Usurbil"ek Yeun (Porquerolles) eta "Nazkaz"ek Gapen jasan behar izan zuten konfinamendua. "Aspalditik erabili izan du estatu frantsesak neurri hau euskaldunen kontra. Hau ere neurri administratiboa da, prefekturak hartutakoa, konfinatuak edo asignatuak ez baita inolako akusazio judizialik. Errefuxiatua leku zehatz batean bizitzera behartzen dute, bertatik atera ezinik, lan-
eskubidea espreski ukatua eta egun jakin batzuetan komisaldegira edo gendarmeriara aurkezteko aginduekin. Neurri honek ez dauka eperik eta



Xabier Miguel Ezkerrak Baionako katedraldean egin zuten itxialdia bukatzeko antolatutako ekitaldian parte hartu zuen

konfinatua etengabeko presiopean dago, polizia espainolaren esku jarriko dutelaren mehatxupean. Gainera, normalean Euskal Herritik oso urrun dauden lekuetan konfinatzen dituzte eta familiarekin harremana mantentzea oso zaila da. Lan egiteko eskubiderik ez izateak ondorio latzak dakarzi: familiarekiko dependentzia, gizarte segurantzarik ez, mediku asistentziarik ez, arazo psikologikoak..." azaldu zuten Senideakeko kideek.

1995eko maiatzaren 6an, egoera berean zeuden beste errefuxiatuekin batera eta Anai-Artea elkartearen babespean, konfinamendu-neurri arbitrarioa haustea eta Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen. Baionako katedralean itxialdi bat burutu zuen haiekin batera, euskaldun diren heinean Euskal Herrian bizitzeko duten eskubidea aldarrikatuz eta guztien egoera legezatzeko eskatuz. Bertan hiru aste igaro ondoren eta administrazio frantsesaren isiltasunaren

aurrian, Iparraldeko zenbait herritarrek eskainitako babes onartu eta maiatzaren 27an itxialdia utzi zuten.

1995eko urrain, beste konfinatu ohi batekin atxilotua izan zen Irisarrin eta ordu batzuk geroago aske utzi zuten. "Estancia irregular" delakoaz akusaturik, Donapauleko auzitegian epaitu zuten, bere kidearekin batera, 1996ko martxoaren 22an. Beren egoera legezatzeko eskabide eta prozedura administratibo guztiak beteak zitzenez, ebazpean infrakziorik ez zela egon erabaki zuen epaileak.

Egun, euskal hiritar orok Euskal Herrian bizitzeko duen eskubidea aldarrikatuz, Ipar Euskal Herrian bizi da. Baina, egoerak bere horretan jarraitzen du, hots, inongo ofizialtasunik gabe (ez paperik, ez lan-eskubiderik ezta segurtasun sozialik ere), edozein unetan atxilotua, espetxeratua edo espulstaturik izateko arriskupean.

Agurtzane Solaberrieta

Espulstioa, zigor gehitua

Errefuxiatu bat legezko dokumenturik gabe atxilotua bada gehienetan berehala espulstaturik izaten da, "berehala ekiteko prozeduragatik". Neurri administratiboa da, ez judiziala, hau da, inolako epaiketarik gabe prefekturak (gobernu zibilak) hartutako neurria. Estatu frantsesak 1979tik hona 250 euskal hiritar espulstatu eta Espainiako poliziaren esku utzi ditu. Une esanguratsuenetakoa 1987ko urria izan zen, izan ere, polizia frantsesak 125 pertsona atxilotu baitzituen, hauen artean 30 haur. **Loli Elkano** eta bere alaba **Iraitz Arriaga** usurbildarrak sarekada horretan atxilotu zituzten. Gehienak espulstaturik edota deportaturik izan ziren.

Espetxe zigorra bete duten gehienak ere entegratuak izaten dira, neurri horren aurka inolako errekurtsorik egiteko denborarik gabe, hau da, de facto zigor gehitu bat aplikatzen zaie espetxe atarian bertan. Gainera, entregatu gehienak tratu txarrak eta torturak jasan izan dituzte. Hor daukagu, esate baterako, **Joxe**

Domingo Aizpurua herritarraren kasua edo Josu Arkauz, nazioarteko zenbait erakundek Espainiako gobernua salatu izan zuten jasan zituzten torturengatik. "*Tratu txar horiek ahal den neurrian saihesteko jartzen dira, hain zuzen, gose greban horrela polizien eskuetara ahalik eta egoera ahulenean iristeko*", diote Senideakeko kideek.

Bada beste espulstio mota bat ere, espulstio judiziala izenekoa, epaitegi baten erabakiaren oinarritutakoa. Errefuxiatuaren kondenaren baren, espetxe zigorrari gain estatu hartan bizitzeko debekua jartzen zaionean aplikatzen da.

Datu bat aipatzeko; guztira 276 errefuxiatu izan dira espulstaturik/entregaturik Espainiako poliziarri herrialde ezberdinetatik.

Espulstaturik izan diren herritarrak edo egun Usurbilen bizi direnak honako hauek dira: Joxe Mari Arriaga, Koldo Lizaso, Maite Laso, Loli Elkano, Leandro Utrera eta Joxe Domingo Aizpurua.



Igor Alkorta Alustiza

□ 24 urte

□ Kirolaria

Gu ere erotzen ari ote gara?

2000ko azaroaren 17 ko Euskaldunon Egunkarian honako titular hau irakurri nuen: *"Scrapie-a atzeman diote Oñatin ardi bati eta artaldeko 153 buruak hil dituzte"*. Azaroaren 11ean, esaterako, Frantziako Gobernuak abereki irinen debekatzea iragarri zuen eta bost egun beranduago Europak ez dituela abere irinak debekatuko, izan ere, abere irinen debekatzea neurri psikologikoa delako eta ez duelako oinarri zientifikorik. Kontuak kontu eta titularrak titular, gauza da "behi eroen" eta "ardi eroen" krisi honek gu erotzen ari gaituela.

Scrapie edo behi eroen gaitzak oso antzeko sintomak omen dituzte. Scrapie gaitzak jotako ardiaren sintomak honakoak omen dira: *"Artaldek banatzen hasten dira, eta urduri mugitzen dira pertsonaren bat hurbiltzen zaienean. Halaber, begirada triste edo puntu jakin batean galduta izaten dute. Baina gaitza dutela nabaritzeko zentzu esanguratsuak, izaten dituzten dardarak dira"*.

Orain, gainera, badirudi agintari politikoek eta osasun arduradunen artean kezka dagoe-la, behi eroen gaitza ardiei kutsa daitekeelako. Hala ere, gu gizakiok lasai egon gaitzke. Izan ere, gaitz hauek ez omen dira gizakietara transmititzen; soilik ardiei eragiten omen die eta ez gizakien osasunari. Beraz, oraingoz lasai egoteko deia luzatu digute agintariek.


Baina, lehen aipatu ditudan Scrapie gaitzak jotako ardiaren sintomak ez al dira oso ohikoak gizakion artean? "Artaldek banatzen hasten dira, eta urduri mugitzen dira pertsonaren bat hurbiltzen zaienean". Hau omen da sintometako bat. Ez al zaizue iruditzen gure artean ere hau oso ohikoa dela? Seguru nago, azaroaren 18ko festan, batek baino gehiagok sintoma hauek izango zituela.

Gogoratu beharra dago Nafarroan abuztuan hiru Scrapie kasu atzeman zituztela. Ondorioz, kasik 3000 ardi buru akabatu zituzten. Beraz, hemendik aurrera artaldean gehiago ibiltzen hasi beharko dugu eta urduri ez jartzen "personaren" bat hurbiltzen zaigunean. Gainera, sintoma hauek horrela badira, hobe larunbat gauekoa ahaztutzea, bestela gureak egin du!

Hala ere, gizakiok libre gaudela diote. Baina, nere ustetan behi eroen eta scrapie gaitzaren eskandaluak erotzen ari gaitu, edo batzuk bai behintzat. Kontsumitzaileen kezka geroz eta haundiagoa da. Emakume bati honako adierazpen hauek entzun nizkion telebistan: "aste honetan muga itxi diote Frantziako haragiari; bezperan ez al zen behirik igaro mugatik?". Agian, bai, emakumea! Baina, ezagutzera ematen diren eskandaluen ondoren kezkatzen hasten gara eta ez, lehenago. Eta hori neurri handi batean gure errua ere bada; ez baitzagu axola ere egiten zer saltzen diguten eta zer ez.

Komikia

Montxo (Euskaldunon egunkaria)



Lehiaketa



Zer dago gaizki, zer faltan, zer soberan?

Asmatzaileen artean Tragoxka tabernan bi pertsonentzat afaria zozketatuko dugu

100.alea, 100. lehiaketa. Baietz ba, 99 irabazle izan ditugula dagoeneko, orain izendatuko duguna izango baita 100. sariaren irabazlea. Ale horretan, beste askotan bezala, baserri baten argazkia jarri genuen. Zuek baserri horren izena asmatu besterik ez zenuten egin behar, eta nahikoa lan izan dituzue. Jaso ditugun erantzun askotan Ezkerrenea izena jarri baduzue ere, **Dranbanea** zen azken lehiaketan jarri genuen baserria. Hala ere asmatzaileak izan dira eta horien artean zozketa egin ondoren

Antonio Arrutik izango du Antxeta tabernan afaltzeko aukera

zure hitza, zure erabakia,
zure sinadura

Bai Euskal Herriari

ESTALNITZAREN ERABILKETA
HERRIAREN ERABILKETA
JANAKI DOKUMENTALAK
HERRIAREN ALDEAN
BAI
HERRIAREN ERABILKETA

Oraindik ez duzula Udanbiltzari Euskal Nortasun Agiria eskatzeko txartela sinatu?

Oraindik baduzu aukera! Aitzagan txartela eskatu eta sina ezazu.

AZAROAK 25 larunbata

- Santa Zezili eguna ospatzeko **kontzertua** eskainiko dute **Zumarte musika eskolako ikasleek** Udarregi ikastolako erdiko aretoan arratsaldeko 19.30etatik aurrera.

AZAROAK 26 igandea

- **Usurbilgo txistulari taldeak Santa Zezili kontzertua** eskainiko du herriko frontoian eguerdiko 13.00etan hasita.

ABENDUAK 2 larunbata

- **“Presorik ez euskal prentsarik gabe” harpidetza afaria** Aitzaga elkartearen gaueko 21.00etan. Prezioa: 2500 pezeta, 1800 pezeta ikasle eta langabetuek. Txartelak Aitzaga, Benta, Bordatxo, Irrati, Txiriboga, Txurru eta Zendoia-enean daude salgai.

ABENDUAK 4 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoren aldeko konzentrazioa.**

Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

ABENDUAK 8 igandea

- **Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak** aurtengo amaiarteko eguna prestatu du dagoeneko. **Bazkaria Patri jatetxean** izango da. Txartela jaso nahi duzuenok deitu hauetako telefono batetara: 943 36 21 39 (Kattalin) 943 36 00 14 (Mila) 943 36 31 02 (Agustina) 943 36 53 40 (Patxi)

OHARRAK

- ✍ **Galtzaragainan dagoen taberna saldu nahi nuke.** Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora.
- ✍ **Neska bat eskaintzen da goizez haurrak zaindu, etxe-ko lanak egin edo adineko jendeari laguntzeko.** Harremanetarako telefonoa: 943 83 39 74
- ✍ **Pisu bat** daukagu **salgai** Muna Lurran (Olarriondo).

Interesatuok deitu arratsaldeko 943 36 45 86 telefonora.

- ✍ **Gauetan haurrak zainduko nituzke**, urtezahar egunean ere bai. Deitu 943 37 14 47 telefonora (Belen).
- ✍ Zizurkilgo Fraisoro Nekazaritza Eskolak antolatuta, herri txikietako jendearentzat **“Automobilien gida baime-naren alderdi teorikoa”** ikastaroa emango da Autoeskolaren Federazioaren eskutik. Ikastaro hau Zizurkilgo Fraisoro eskolan izango da eta ordutegi ezberdinak daude. Hau, eta nekazaritza arloko beste hainbat ikastaroei buruz (fruitugintza, fruitondoen iñausketa, barazkigintza ekologikoa, ureztaketa, lora-zaintza, jardinen diseinua etab.) informazioa honako telefonoetan:
Fraisoro, 943 69 21 62 (Reme) edo **Jon Ander Leñena Usurbilgo Udai Inge-niari Agronomoa 943 37 19 51** (astelehen eta ostegun goizetan).

“Presorik ez, euskal prentsarik gabe”

Harpidetza afaria Aitzaga elkartearen abenduaren 2an gaueko 21.00etan.

Menua:

- Langostinoak
- Arrazoin zopa
- Makailu tortila
- Letxua
- Postrea
- kafe konpletoa

Prezioa: 2500 pezeta (langabetuek eta ikasleek 1800 pezeta)

Usurbilgo odol emaielen bazkaria abenduaren 2an Patri jatetxean

Deitu hauetako telefono batetara:

943 362139 (Kattalin)
943 360014 (Mila)
943 363102 (Agustina)
943 36 53 40 (Patxi)

Azaroaren 8an, goizeko 6.45 aldean Fagor-Luzuriaga ondoan, N-634 errepidean, Donostia aldetik Usurbil aldera zeterren SS-0377-AM matrikuladun Ford Fiesta batek eta Donostia aldera zihosan SS-8117-BD matrikuladun B.M.W 650 moto batek izan zuten istripua ikusi ahal izan zuten testiguak behar ditu udaltzaingoa. Batik bat, kotxe zuri batean zihosan 30 bat urteko neska gazte batekin hitz egin nahi dute, istriputik oso gertu gelditu zenarekin hain zuzen ere. Telefonoak: 943 36 11 12 edo 656 799850

Noaia! kamisetak



HAURRAK: 1000 pezeta

HELDUAK: 1200 pezeta

NEGUKO OLINPIADAK 2000

ZER? Neguko kirolak simulatuz, herri ezberdinetan gasteak ezagutzeko aukera paregabea.
NORENTZAT? 14-18 urte bitarteko gasteentzat.
NON? Itsasondon.
NOIZ? Azaroaren 25ean (larunbata).
ZENBAT? 500pta. (bazkaria+garraioa).
Informatzeko eta izen-emateko telefonoa:



ANTOLATZAILEA: Euskara Elkarteen Topagunea.

LAGUNTZAILEAK: Biskaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

USURBILGO OFIZIOAK ZURE

ESKURATUTAKOAK

I geltseritza

URBANTZI



JOSE MARI IKURAZA

Maite, 4 Kalezar
Telf eta faxa: 943 37 12

P inturak

FERNANDO PINTURAK
Enpapelaketak eta pinturak orokorrean
Telf: 943 36 60 19- 36 34 60

I turgintza

IÑAKI LATAILLADA

Iturgintza gas eta hotz gizona
INSTALAKUNTZAK
Mobila: 609 38802

RAMON BARCENILLA

• Pilo pintura eta gotele lanak
• Papereztatze- lanak
• Pintura-lanak orohar
Mobila: 629 46 09 66

ERRAZKIN IGELTSEKITZA

Kale Nagusia, 1
☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25
Santuenea ☎ 629 42 05 65

JOSE AIZPURUA UNANUE
Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea  Fatxadun konponketa
Pintore kalea, 1 - 3.A LASARTE-ORIA Tel.: 36 17 83
Muna Lurra, 20 - 1.B USURBIL Tel.: 943 36 37 67

Pinturas
lon

943 83 09 37 ☎ 670 397504

JOSUE ARANZAZISTRO

Igeltseritza eta pintura
Juan Jose enea, 6
Kalezar
☎ 943 36 05 50- 606 37 21 05

JOSEBA ARANGUREN

☎ 943 36 43 64

E lektrizitatea

A rotegiak

BEREZIARTUA

Egurrezko eta aluni-
begurrezko dituhok

Aginaga Telf: 943 37 15 71

Iñaki Iturgintza

- Iturgintza orokorrean
- Berokuntzak
- Gasa

Mobila: 600 024 825

MIKEL IZAGI

Golz-Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95

PORTUARRUME

BAINUKO ALTZARIAK



Telf: 943 36 46 37

E skaiola

JOSE RAMON IBARGOEN

Neurriko altzariak
Errotaberri kalea, 3 Osinalde
☎ 943 36 14 48 - 36 31 24

Gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu!

943 36 03 21
telefonora

JOSE ANTONIO ELORZA

Galtzaragaina 2-2B

Telf 943 37 34 70